

Ikasle pisuen egoera arautzeko unea da

- “Ardura bereziz eta ezjakintasunez begiratzen diogu etorkizunari”, jakinarazi du Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak
- **Administrazioek ateratako diru-laguntzetan alor honetakoak gehitzeko eskaera luzatu du elkarteen plataformak**

Donostian, 2020ko irailaren 10ean. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) Euskadin pisua elkarbanatzen bizi diren gazteen errealitatea nabarmen okertu dela ikusita “egoera berri hau egokitu eta arautu dadin” eskatu du. COVID-19aren ondorioz ikasleek euren pisua ordaintzen jarraitu behar izan zuten nahiz eta kasu askotan ez erabili.

Horixe da gazteen aldarrikapen nagusia: ikasle pisuei bideratutako neurriak. “Ohiko etxebizitzan alokairuak ordaintzeko administrazioak diru-laguntzak eskaini zituen, baina ikasle pisuak laguntza hauetatik kanpo gelditu ziren. Eta horrek ondorio zuzenak izan ditu”, jakinarazi du EGK-k. Jarraian proposamen eta ardura nagusiak:

- Hezkuntza eta etxebizitza lan-arloetatik abiatu da #IkaslePisuakZer kanpaina eta hauek dira gazteek aurkeztutako zalantza, eskari eta proposamenetako batzuk:
- Ikasleen egoera hau aintzat hartzea eta neurrietan uneko egoera presente izatea.
- Partaidetza espazioak bultzatzea, batez ere mota honetako erabakiak hartzeko (nolabait ikasle baten eguneroko bizitza baldintzatzen dutenak).
- Egoeraren berri beharrezko denbora tartean ematea. Ezjakintasun eta ezegonkortasun egoerak ahalik eta lasterren ekiditea. Jakinarazpenak lehen momentotik ikasleek esku egotea, hau da, informazio gardena eta organizazioari dagokiona, ikasleen eskura jartzea.
- Laguntza ekonomikoetan, neurriak gehitzea. Beraien ohiko etxebizitzan bizitzen geldituko direnen kasuan (garraiorako esaterako) edo joan etorrian ibiliko direnen kasuan.

Azkenik, elkarteen plataformak adierazi du gaiari jarraipena egingo diotela luzatutako eskariak bete daitezzen eta ikasle pisuen egoera arautu dadin.